

Euskal AEko Merkatuko zerbitzuen sektoreko salmentak % 2,9 igo dira 2025eko hirugarren hiruhilekoan


Salmentak aurreko hiruhilekoan baino % 1,4 handiagoak izan dira

Euskal AEko merkatuko beste zerbitzu batzuen sektoreko salmentek % 2,9 egin dute gora 2025eko hirugarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, Eustaten datuen arabera. Hori guztia prezio konstanteetan eta egutegiko eraginak zuzendua. Sektore honen barne ondorengoak daude: Garraioa, Ostalaritza, Informazioa eta komunikazioak eta Enpresentzako zerbitzu-jardueren sektoreek eskainitako zerbitzuak.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, prezio konstanteetan eta dagozkion urtaro-eraginak kenduta, salmentak % 1,4 hazi dira 2025eko hirugarren hiruhilekoan.

Euskal AEko merkatuko beste zerbitzu batzuen indizearen urte arteko aldakuntza-tasa. (%)

Egutegiko eraginak zuzendua. Prezio konstanteak



Iturria: Eustat. Beste merkatu zerbitzuen indizea

Merkatuko beste zerbitzu batzuen barruan, salmenten urte arteko bilakaera % 6,4 igo da *Garraio eta biltegiaritze* sektorean, % 3,2 *Jarduera profesional, zientifiko eta tekniko*en sektorean eta % 1,0 bai *Ostalaritzan* zein *Administrazio-jarduerak eta zerbitzu lagungarriak* sektorean. Aldiz, *Informazio eta komunikazio*en sektorean % 0,4 txikiagoak izan dira salmentak.

2025eko bigarren hiruhilekoaren aldean, salmentak % 3,2 hazi dira *Garraio eta biltegiatzean*, % 1,2 *Administrazio-jarduerak eta zerbitzu lagungarriak* sektorean, % 0,9 *Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan* eta % 0,6 *Informazio eta komunikazioen* sektorean. Bestalde, *Ostalaritzan* salmentak % 2,0 txikiagoak izan dira.

Euskal AEko merkatuko beste zerbitzu batzuen indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). 2025/III

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	At / A(t-4)
Indize orokorra sektorearen arabera	2,9	1,4	2,6
Garraioa eta biltegiatzea	6,4	3,2	5,4
Ostalaritza	1,0	-2,0	2,2
Informazioa eta komunikazioak	-0,4	0,6	-0,1
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	3,2	0,9	2,3
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	1,0	1,2	-0,7
Indize orokorra lurralde historikoaren arabera			
Araba/Álava	5,3	1,0	5,4
Bizkaia	3,6	1,8	2,6
Gipuzkoa	0,9	1,0	1,5
Enplegu-indizea			
Euskal AE	0,3	-0,2	0,5

(p) Behinbehineko datuak

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

A(t) / A(t-4) Urteen arteko aldakuntza urte honetan zehar. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

Data 2025eko Azaroaren 14a

Iturria: Eustat. Merkatuko beste zerbitzu batzuen indizea

Lurralde historikoei dagokienez, hiru lurralde historikoetan positiboa izan da salmenten bilakaera urteko hirugarren hiruhilekoan aurreko urteko hiruhileko berberarekin alderatuz. Araban % 5,3 hazi dira salmentak, Bizkaian % 3,6 eta % 0,9 Gipuzkoan. Aldi berean, aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenten igoera % 1,8koa izan da Bizkaian eta % 1,0koa Araban eta Gipuzkoan.

Euskal AEko Merkatuko beste zerbitzu batzuen sektoreko landunen indizeak % 0,3 egin du gora 2024ko hirugarren hiruhilekoaren aldean; aldiz, 2025eko bigarren hiruhilekoaren aldean, enplegua % 0,2 jaitsi da.

INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak egutegiko eraginak zuzendutako serieetan oinarritzen dira eta hiruhileko arteko aldakuntzak urtaro-eraginik gabeko serieak oinarri hartuta.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hiruhilekoaren indizea kalkulatu da laginaren % **96,68 kontuan izanik**.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62